

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 700/2019 Erabakia, azaroaren 5ekoa. Onestea Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaile kargua esleitzea Pablo de Oraá Oleaga Arabako Foru Aldundiko Kirol zuzendariari

Ekainaren 20ko 22/1988 Foru Arauak, Gazteriaren Foru Erakundea eratzen duenak, xedatutakoaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio onartzea, erakunde autonomo horretako Administrazio Kontseiluak proposatuta, Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaile karguaren izendapena eta kargu uztea.

Era berean, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubidearenak, eta uztailearen 11ko 10/2018 Foru Arauak, foru kargu publikoen jarduna arautzen duena, jasotzen dute Aldundiko zuzendariak foru erakunde autonomoen lehendakaritza edo zuzendaritza beren gain hartzeko aukera.

Horregatik, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak eta Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzaile kargua esleitzea Arabako Foru Aldundiko Kirol zuzendari Pablo de Oraá Oleaga jaunari.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko azaroaren 6tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA DEL VAL SANCHO